

# ONDARROAKO UDALA -KIROL AGENDA-

IZANDAKO SARRERAK: **67561**

FACEBOOK-eko "LAGUNAK": **1353**

HILEA

EKAINA

EGUNAK

17 eta 18



**KOAXI HIB TRIATLOI TALDEA**  
ONDARROAKO UDALAK BABESTUTAKO ELKARTEA



## **LEKEITIOKO TRIATLOIA**

Larunbatean Lekeitioko Triatloia ospatuko da. sprint neurrikoa.

Bertan burutu beharreko distantziak honakoak dira:  
750metro igerian, 20km bizikletan eta 5km lasterka burutu beharko dituzte partehartzaileek.

Lekeitioko Triatloian ere Euskadiko Txapelketa jokatuko da sprint mailako Triatloiean.

Koaxi Hib Triatloi Taldetik Nagore Elu, A sier A stigarraga, Iker Badiola eta Txomin Garciak hartuko dute parte.

***Zorte on denoi!!!!***



# **SAN JUAN DE FLUMENeko TRIATLOIA**

*Ekainak 19 an San Juan de Flumeneko triatloia ospatuko da eta bertan Koaxi Hib Triatloi Taldeko Asier Leon eta Beñat Goyak parte hartuko dute.*

*Burutu beharreko distantzia 1900 metro igerian, 72km bizikletan eta 14km lasterka izango da.*

*Lasterketa hau Monegrosman zirkuitoaren barruan dago.*

**ZORTE ON BIOI!!!!**



# AURRERA KIROL ELKARTEA

ONDARROAKO UDALAK BABESTUTAKO ELKARTEA



## BAZKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA

### BAZKIDEEN OHIKO ASANBLADA OROKORRA

Ekainak 17, ostirala, arratsaldeko 18:30etan bazkideen ohiko asanblada orokorra egingo da Ondarroako kofradia zaharreko bigarren solairuan.

Lehenik eta behin amaitu den denboraldiko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea egingo dira, ondoren zuzendaritza batzorde berria aukeratuko da, eta amaitzeko, kargu hartzearen ostean hurrengo denboraldirako aurrekontua eta kirol proiektua aurkeztuko dira.

Azkenik galderentzako eta eskarientzako tartea egongo da.

Gogoratu asanbladara sartzeko beharrezkoa izango dela Aurrerako bazkidea izatea.

#A upaA urrera



# ARIZKUN-URDAZUBI

*Igande honetan Arizkun-Urdazubi ibilbidea duen mendi irteera antolatu da. Mendi irteera hau Debarrek antolatzen dute (hasiera batean Iparlara zen), eta Eurokoparen eraginez muga pasatzeko dauden arazoaren eraginez ibilbidea aldatu egin dute. Hauek dira datuak:*

**Data:** Ekainak 19

**Ordua:** 6:45, astilleruko geltokitik

**Ibilbidea:** Arizkun - Amaiur - Alkurruntz (934) - Urdazubi

**Luzera:** 20 km

**Desnibela:** 1.000 metro

**Apuntatzeko epea, ekainak 16 osteguna**






# ONDARROAKO ARRAUN ELKARTEA

ONDARROAKO UDALAK BABESTUTAKO ELKARTEA



## ARC-1 TRAINERU LIGA



*Larunbat honetan Ondarroako Arraun Elkarteko talde nagusiak ARC 1 ligako denboraldia hasiko du Bilboko uretan. Arratsaldeko 17etan hasiko da estropada Bilboko uretan. Ea emaitz on batekin etortzen zareten etxera!!*









# HITZALDIA

“LAS PALABRAS  
IMPORTAN, NO LLAMES  
MARICÓN AL ARBITRO”.  
LA DIVERSIDAD SEXUAL  
EN EL DEPORTE



**HIZLARIA:**


**ELENA OLAORTUA**  
**Aldarteko kidea**

**EKAINAK 21 ASTEARTEA**

**ORDUA : 19:00**

**TOKIA : ETXELILAN**

Antolatzailea Laguntzailea





# ZALDUPE UDAL KIROLDEGIA

KIROLDEGIKO IKASTAROAK



## 2016ko Udal Kirol-Udalekuak

(KIROLDEGIAN ETA BESTE KIROL-GUNEETAN)

KIROL ANITZA ETA JOLASAK



**NORENTZAT**

**6-12** urte bitartekoentzat

(2004-01-01 eta 2009-12-31 bitartean jaiotakoak)

**NOIZ**

Uztailaren 5etik 15era (9 saio)

Uztailaren 18tik 29ra (9 saio)

**ORDUTEGIA**

09:30etik 13:00etara (astelehenetik ostiralera)

**PREZIOAK**

29,25€ Kiroldegiko abonatuentzat

(Txandako)

44,10€ Gainontzekoentzat

**INSKRIPZIOAK**

**Maiatzaren 31 arte** (Zaldupe Udal Kiroldegian)

**LAGUNTZAILEAK: Kirol Taldeak**



AFT/AST



AMT



EUKE



ONDARROA



KOAKI



OKTT



OUE



MRT

**ANIMATU ETA EMONIZENA!**

-KIROL BATZORDEA-

[www.ondarroa.eu](http://www.ondarroa.eu)

[kirolagenda@gmail.com](mailto:kirolagenda@gmail.com)

